Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

997

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Befesa Zinc Sondika SAri ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Sondikako (Bizkaia) udalerrian zinka galda eta fin dezan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 1ean, Befesa Zinc Sondika SA enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Sondikako (Bizkaia) udalerrian zinka galdatu eta fintzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera honako dokumentazio teknikoa aurkeztu zuen:

– Oinarrizko proiektua (2006ko azaroa).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko azaroa).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Befesa Zinc Sondika SA enpresak, besteak beste, jardueraarako 1987ko otsailaren 18ko baimena zuen. Baimen hori zinka galdatu eta fintzeko jarduerarako eman zen. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: kolektorera isurketak egiteko baimena, 2004ko ekainaren 23koa; hondakin arriskutsuen kudeatzaileen baimena, 1996ko urriaren 3koa; hondakin ez-arriskutsuen kudeatzaileen baimena, 2006ko urriaren 20koa; hondakin arriskutsuen ekoizleen baimena, 2006ko irailaren 28koa; industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroko inskripzioa, 2005eko otsailaren 21ekoa, eta atmosferan kutsadura sor dezakeen instalazioaren baimena, 1998ko otsailaren 24koa, eta ondorengo handitze eta berritzeak, hondakin eta uren arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki.

2006ko abenduaren 5ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoaren bidez proiektuaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Sondikako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari kontsultatu zien.

2007ko otsailaren 14an eta 2007ko irailaren 28an, ingurumen organoak agiri osagarriak txertatzeko eska-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

997

RESOLUCIÓN de 30 de abril de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la actividad de fundición y refinado de Zinc, promovida por Befesa Zinc Sondika, S.A. en el término municipal de Sondika (Bizkaia).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 1 de diciembre de 2006, Befesa Zinc Sondika, S.A. solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de fundición y refinado de Zinc en el municipio de Sondika (Bizkaia). La solicitud se acompañaba de la siguiente documentación técnica:

– Proyecto básico (noviembre de 2006).

– Resumen no técnico (noviembre de 2006).

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Befesa Zinc Sondika, S.A. tenía, entre otras, licencia de actividad de 18 de febrero de 1987. La citada autorización se concedió para la actividad de fundición y refinado de Zinc. Asimismo, la empresa promotora disponía de las correspondientes autorizaciones de vertido a colector de 23 de junio de 2004, gestor de residuos peligrosos de 3 de octubre de 1996, de gestor de residuos no peligrosos de 20 de octubre de 2006, autorización de productor de residuos peligrosos de 28 de septiembre de 2006, Inscripción en el Registro de Productor de Residuos Industriales Inertes de fecha 21 de febrero de 2005 y Autorización de Instalación Potencialmente Contaminadora de la Atmósfera de fecha 24 de febrero de 1998, y posteriores ampliaciones y renovaciones, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de residuos y de aguas.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 5 de diciembre de 2006 solicita informes a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que por el órgano ambiental se acuerde el trámite de información pública del proyecto, concretamente se consulta al Ayuntamiento de Sondika, el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y al Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia.

Con fecha 14 de febrero de 2007 y 28 de septiembre de 2007, el órgano ambiental requirió al

tu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko urriaren 22an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Befesa Zinc Sondika SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak, 2008ko urtarrilaren 14an, txostena eskatu zien Sondikako Udalari, Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendariordetzari, eta 2008ko otsailaren 8an Iparraldeko Ur-konfederazioari.

2008ko urtarrilaren 30ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Befesa Zinc Sondika SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

2008ko otsailaren 14an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instala-

promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 22 de octubre de 2007.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por resolución de 14 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Befesa Zinc Sondika, S.A. en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Bizkaia, ambas con fecha de 3 de diciembre de 2007. Igualmente se procede a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública se constata que no se ha presentado alegación alguna.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 14 de enero de 2008 informe al Ayuntamiento de Sondika, a la Subdirección de Salud Pública de Bizkaia y al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia y el 8 de febrero de 2008 a la Confederación Hidrográfica del Norte.

Con fecha 30 de enero de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Befesa Zinc Sondika, S.A. incorporando la propuesta de resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

El día 14 de febrero de 2008 se recibe comunicación del promotor en el que se formulan diversas consideraciones en relación con la propuesta de resolución de Autorización Ambiental Integrada.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presenta autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen

zioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Befesa Zinc Sondika SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortu eta kudeatzekoa, kolektorera isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumenalderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Baldintza teknikoak aplikatuz, Befesa Zinc Sondika SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Sondikako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anexo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Befesa Zinc Sondika, S.A. tales autorizaciones se circunscriben a las de producción y gestor de residuos peligrosos y no peligrosos, vertido a colector y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Befesa Zinc Sondika, S.A. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Sondika y del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Bereziki Europako Batzordearen BREF agiri hauen edukia hartu da kontuan: burdinarena ez den metalurgiarena, «Reference Document on Best Available Techniques in the Non Ferrous Metals Industries», 2001eko abendukoa, eta hondakin-kudeatzaileena, «Reference Document on the best available techniques for the waste treatment industries», 2006ko abuztukoa. Gainera, sektoreko araudiei dagokienez, kasu honetan bereziki aplikatzekoa da hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Befesa Zinc Sondika SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla Ebazpen hau lantzeko.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko urtarrilaren 28an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Legea, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; uztailaren 1eko 16/2002 Legea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplika daitekeen gainerako araudia,

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por la legislación sectorial aplicable. En particular se ha considerado el contenido del documento BREF de metalurgia no férrea «Reference Document on Best Available Techniques in the Non Ferrous Metals Industry», de fecha diciembre de 2001, y BREF de Gestores de residuos «Reference Document on the best available techniques for the waste treatment industries», de agosto de 2006, de la Comisión Europea. Además en lo que se refiere a las normativas sectoriales, en este caso resulta de aplicación, en especial, la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió propuesta de resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Befesa Zinc Sondika, S.A.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, se ha cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación. En este sentido, debe tenerse en cuenta que por los servicios técnicos adscritos a este órgano se ha procedido al análisis de las consideraciones realizadas por el promotor en este trámite, habiéndose tenido en cuenta las mismas en la elaboración de la presente Resolución.

Considerando la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 28 de enero de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Sondikako (Bizkaia) udalerriko Sangroniz kaleko 24an eta IFK: A-48768121 duen Befesa Zinc Sondika SA enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematea Sondikako udalerrian zink-hondakinen bidez zink oxidoa fabrikatzeko, ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.5.b kategorian sartuta dago, «Metal ez-ferrosoak, aleazioa eta berreskuratutako produktuak (fintzea, galdategian moldekatzea) barne, galdatzeko instalazioak, egunero berun eta kadmiorako 4 tona baino gehiago, edo gainerako metaletarako 20 tonako galdatze-ahalmena dutenak», eta 5.1 kategorian, «Hondakin arriskutsuak baliotzea (10 t/eguneko ahalmena)».

Befesa Zinc Sondika SA enpresaren jarduera hondakinetako zinka berreskuratzea da, prozesu metalurgikoen bidez (kudeaketa-eragiketaren R4 kodea) zink oxidoak lortuz, batik bat kautxuaren eta zeramikaren industriarako.

Urteko kudeaketa-ahalmena 20.000 t-koa da, eta hortik 12.000 t zink oxido, eta 1.325 t zink-errauts ekoizten dira.

Erabilitako lehengaiak hauek dira: zink-hautsa, zink-txatarra, galautsak eta aparrak, burdinarik gabeko metalak, matak eta aparrak, zink-lingotea eta zink oxidoa. Zink-hautsa eta zink oxidoa ontziratuta biltegiratzen dira, lurzoru estankoan eta estalita. Gainerako lehengaiak soltean biltegiratzen dira, lurzoru estankoan.

Instalazioko ekoizte-lerroetan garatutako ekoizte-prozesuak hauek dira:

– Bahetzea: materialak sare metalikoko bahetik pasatzen dira, zati metalikoa hautsetatik bereizteko. Zati metalikoa kutxetan jartzen da, ondoren galdatzeko. Hautsezko zatia mahuka-iragazki batera xurgatzen da eta tobera batean geratzen da. Hauts hori 1 t-ko bigbagetan sartzen da, zink oxidoa edo zink kloruroa eta amonioa fabrikatzen duten enpresei saltzeko.

– Galdaketa: material metalikoak galdatzeko labe birakari batean urtzen dira 450º C inguruan. Labe birakarietan lortzen den galda zali batzuetan deskargatzen da eta arragoa-labeetara eramaten da, oxidazioa gerta dadin.

– Oxidazioa: urtutako zinka arragoa-labeetan kargatzen da, 1.000-1.200º C arteko tenperaturan. Galda sublimatu egiten da, eta gasek, xurgapeneko

RESUELVO:

Primero.– Conceder a Befesa Zinc Sondika, S.A. con domicilio social en la calle Sangroniz, 24 del término municipal de Sondika (Bizkaia) y CIF: A-48768121, Autorización Ambiental Integrada para la elaboración de óxido de zinc a partir de residuos de zinc, en el término municipal de Sondika, con las condiciones establecidas en el apartado Segundo de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría 2.5.b «Instalaciones para la fusión de metales no ferrosos, inclusive la aleación, así como los productos de recuperación (refinado, moldeado en fundición) con una capacidad de fusión de más de 4 toneladas para el plomo y el cadmio o 20 toneladas para todos los demás metales, por día», y la categoría 5.1 «Valorización de residuos peligrosos (capacidad de más de 10 t/día)», del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La actividad general de Befesa Zinc Sondika, S.A. es la recuperación del zinc contenido en residuos, mediante elaboración óxidos de zinc a través procesos metalúrgicos (código de operación de gestión R4), destinados principalmente a las industrias de caucho y cerámica.

La capacidad anual de gestión es de 20.000 t, a partir de la cual se producen de 12.000 t de óxido de zinc, y 1.325 t de cenizas de zinc.

Las materias primas empleadas son las siguientes: polvo de zinc, chatarra de zinc, granzas y espumas, metales no férreos, matas y espumas, lingote de zinc y óxido de zinc. El polvo de zinc y el óxido de zinc se almacenan envasados, sobre suelo estanco y bajo cubierta. El resto de materias primas se almacenan a granel sobre suelo estanco.

Los procesos productivos desarrollados en las distintas líneas de producción de la instalación son los siguientes:

– Criba: los materiales son pasados a través de la criba de mallas metálicas, en la que se separa la parte metálica de la pulverulenta. La parte metálica se deposita en cajas para su fusión posterior. La parte pulverulenta se aspira a un filtro de mangas quedando depositada en una tolva. Este polvo se ensaca en Big-bags de 1t para su venta a empresas que fabrican óxido de zinc o cloruro de zinc y amonio.

– Fusión: los materiales metálicos son fundidos en dos hornos rotativos de fusión a unos 450º C aproximadamente. El caldo que se obtiene en los hornos rotativos se descarga en unas cucharas para llevarlo a los hornos de crisol donde se produce la oxidación.

– Oxidación: se carga en los hornos de crisol el zinc fundido, siendo la temperatura de los hornos de entre 1000-1.200º C. El caldo se sublima y los gases

airearekin ukipenean, erreakzionatu eta zink oxidoa lortzen da, labeen ahoetan kokatutako xurgapen-kanpaien bidez biltzen dena.

Erabilitako energia-baliabideak erregaien (gas naturala eta gasolioa) eta energia elektrikoaren erabileratik datoz. Gas naturala galdatze- eta oxidatze-prozesuetan erabiltzen da, eta urtean 25.000.000 kWh kontsumitzen da; gasolioa, berriz, instalazio barruko garraiorako erabiltzen da, eta urtean 22.000 litro kontsumitzen dira. Bestetik, energia elektrikoa instalazioen funtzionamendu orokorrerako erabiltzen da, eta urtean 25.358.515 kWh kontsumitzen da.

Kontsumitutako ura udal-sarekoa da, erabilera sanitarioetarako (komunak, dutxak eta konketak), eta urtean 856 m^3 inguru kontsumitzen da.

Instalazioak isuri atmosferikoen 5 foku sistematiko ditu: bat lehengaia garraiatu eta bahetzearena, bestea bi labe birakariena, eta hiru arragoa-labeenak. Gainera, larrialdietarako mahuka-iragazki bat dago, matxura badago edo beste batzuk konpondu behar badira, eta foku ez-sistematikoa da. Isuri atmosferikoen foku guztiek mahuka-iragazki bat dute.

Befesa Zinc Sondika SA enpresaren instalazioetan sortutako efluenteak hauek dira: industria-urak, sanitarioak eta euri-urak. Instalazioan bi isurketa-puntu daude sortutako efluenteetarako. Instalazioak garbitzeko lanetako industria-urak, langileen aldagela eta komunetako eta bulegoetako komunetako ur sanitarioak, eta patioko eta teilatuaren zati bateko euri-urak araztegitik igarotzen dira Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorera isuri aurretik. Bestetik, teilatuaren beste zatiko euri-ur garbiak zuzenean ibilgura isurtzen dira.

Instalazioak hondakin-uren araztegi bat du, 15 m^3/h arazteko ahalmenekoa. Arazketa dekantazio-instalazio trinko batean egiten da (koagulazioa eta malutatzea bertan egiten da), eta dekantazio-gune batean.

Hondakin arriskutsuak sortzen dituzten prozesuak zink oxidoa lortzea eta zerbitzu orokorrak dira. Instalazioan sortutako hondakin arriskutsuak, besteak beste, oxidazio-labeetako zepak eta emultsio oliotsua dira. Gainera, zinkez kutsatutako mahuka-iragazkien autokudeaketa-prozesua egiten da.

Befesa Zinc Sondika SA enpresak BREF agiri hauetako teknika erabilgarri generiko onenak ezarri ditu: burdinarena ez den metalurgiarena, «Reference Document on Best Available Techniques in the Non Ferrous Metals Industries», 2001eko abendukoa, pro-

en contacto con el oxígeno del aire de aspiración reaccionan obteniendo óxido de zinc que es recogido mediante campanas de aspiración situadas en las bocas de los hornos.

Los recursos energéticos empleados provienen del uso de combustibles (gas natural y gasóleo) y energía eléctrica. El gas natural se utiliza en los procesos de fusión y oxidación, suponiendo un consumo anual de 25.000.000 kwh y el gasóleo se utiliza para el transporte interno de la planta, suponiendo un consumo anual de 22.000 litros. Por su parte, la energía eléctrica es utilizada en el funcionamiento general de las instalaciones, con un consumo anual de 25.358.515 kWh.

El agua consumida proviene de la red municipal, y está destinada a usos sanitarios (servicios, duchas y lavabos), siendo el consumo anual estimado de 856 m^3.

La instalación cuenta con 5 focos de emisión sistemáticos a la atmósfera correspondientes, uno de ellos al transporte y cribado de la materia prima, otro a los dos hornos rotativos, tres a los hornos de crisol. Cuentan, asimismo, con un filtro de mangas de emergencia para el caso de avería o reparación de otros, que constituye un foco no sistemático. Todos los focos de emisión a la atmósfera cuentan con filtros de mangas.

Los efluentes generados en las instalaciones de Befesa Zinc Sondika, S.A. son: aguas industriales, sanitarias y pluviales. Existen dos puntos de vertido en la instalación para los efluentes generados. Las aguas industriales procedentes de las operaciones de limpieza de las instalaciones, las aguas sanitarias procedentes de los vestuarios y aseos de los trabajadores y de los aseos de oficinas, y las aguas pluviales del patio y parte del tejado pasan por la depuradora previo a su vertido al colector del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia. Por otro lado, las aguas pluviales limpias procedentes de la otra parte del tejado se vierten directamente a cauce.

La planta dispone de una depuradora de aguas residuales cuya capacidad de depuración es de 15 m^3/h. La depuración se realiza en una planta de decantación compacta (donde se realiza la coagulación y floculación) y en una zona de decantación.

Los procesos generadores de residuos peligrosos son la obtención de óxido de zinc, y servicios generales. Los residuos peligrosos generados en la instalación son entre otros escorias de hornos de oxidación y emulsión aceitosa. Además, se realiza el proceso de autogestión de mangas de filtros contaminadas con zinc.

Befesa Zinc Sondika, S.A. tiene implantadas las mejores técnicas disponibles genéricas del BREF de metalurgia no férrea «Reference Document on Best Available Techniques in the Non Ferrous Metals Industry», de fecha diciembre de 2001, en cuanto a

zesuak kontrolatzeko sistemak (bereziki tenperaturaren kontrola) eta gasak arazteko sistemak erabiltzeari dagokionez; eta hondakin-kudeatzaileena, «Reference Document on the best available techniques for the waste treatment industries», 2006ko abuztukoa. Horrela, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruz indarrean den araudian ingurumena orokorrean babesteko helburuak beteko dira.

Bigarrena.– Befesa Zinc Sondika SA enpresak Sondikako (Bizkaia) udalerrian zink-hondakinen bidez zink oxidoa fabrikatzeko sustatutako jarduera ustiatzeko baldintza eta betekizun hauek ezartzea:

A) Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da 409.423,91 euroko zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituena: hirugarren pertsonei edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalteordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratuko da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumo-prezioen indizearen arabera (KPI) handituz.

B) Fidantza-prestazioa 65.507,83 euroko zenbatekoaz, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 28. artikuluaren 2. atalean ezarritako baldintzetan, eta artikulu horren 3. atalean aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da. Fidantza horren zenbatekoa tratamenduaren gehienezko gaitasunaren arabera ezartzen da; 20.000 t/urteko kopurua ezarri da.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumo-prezioen indizearen arabera (KPI) handituz, ingurumen organoak hala eskatuta.

C) Befesa Zinc Sondika SA enpresak Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunari buruz emandako edozein daturen aldaketen berri emango dio Ingurumen Sailburuordetzari.

D) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Befesa Zinc Sondika SA enpresak kudeatu beharreko hondakinak hartu, ikuskatu eta biltegiratzeko baldintzak eta kontrolak.

Atal honetan adierazitako hondakin onargarrien artetik fabrikan tratatuko den hondakin berri bakoitzarekin, Befesa Zinc Sondika SA enpresak hasierako karakterizazio bat egingo du, hori Sondikako instalazioetan tratatzeko aukera egiaztatzearren.

utilización de sistemas adecuados de control de procesos (en especial, control de temperatura) y sistemas de depuración de gases, y BREF de Gestores de residuos «Reference Document on the best available techniques for the waste treatment industries», de agosto de 2006, de forma que se cumplan los objetivos para la protección del medio ambiente en su conjunto señalados en la normativa vigente en materia de prevención y control integrados de la contaminación.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la actividad de elaboración de óxido de zinc a partir de residuos de zinc, promovido por Befesa Zinc Sondika, S.A. en el término municipal de Sondika (Bizkaia):

A) Deberá constituirse un seguro de responsabilidad civil por una cuantía de 409.423,91 euros que cubrirá el riesgo de indemnización por los posibles daños causados a terceras personas o a sus bienes y los costes de reparación y recuperación del medio ambiente alterado, derivados del ejercicio de la actividad objeto de autorización.

El importe de dicho seguro será actualizado anualmente, incrementándose en función del Índice de Precios al Consumo (IPC) de los 12 meses anteriores.

B) Prestación de fianza por un importe de 65.507,83 euros en los términos establecidos en el artículo 28, apartado 2, del Real Decreto 833/1988 de 20 de julio, que podrá constituirse en cualquiera de las formas previstas en el apartado 3 de dicho artículo. El importe de dicha fianza se determina en función de la capacidad máxima de tratamiento que se establece en 20.000 t/ año.

El importe de dicha fianza podrá ser actualizada anualmente, incrementándose en función del Índice de Precios al Consumo (IPC) de los 12 meses anteriores a requerimiento del órgano ambiental.

C) Befesa Zinc Sondika, S.A. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al titulado superior responsable de las relaciones con la Administración.

D) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

D.1.– Condiciones y controles para la recepción, inspección y almacenamiento de residuos a gestionar por Befesa Zinc Sondika, S.A.

Para cada nuevo tipo de residuo que se prevea tratar en la planta, incluido entre los residuos admisibles señalados en este apartado, Befesa Zinc Sondika, S.A. realizará una caracterización inicial del mismo, a fin de verificar su posibilidad de tratamiento en sus instalaciones de Sondika.

Aipatu karakterizazioa egin ondoren, Ingurumen Sailburuordetza honen onespen zehatza eskatu beharko du. Eskaera horrekin batera, egindako karakterizazioaren emaitzak, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen eta behar izanez gero, partida bakoitza jaso aurretik aztertu beharrekoen proposamena aurkeztuko beharko du.

Hondakin jakin bat onartzeko aukera egiaztatu ondoren, Befesa Zinc Sondika SA enpresak hondakin horren titularrari onarpena ziurtatzen duen agiria igorriko dio, onarpen horren baldintzak ezarriz.

Hondakinak onartu eta jasotzeko aukera egiaztatzeko xedearekin, Befesa Zinc Sondika SA enpresak hondakin horiek onartzeko parametroen egiaztapena ahalbidetuko duten baliabide tekniko eta giza baliabideak eskuragarri izan beharko ditu une oro. Onarpena baldintzatzen duten parametro horiek ezartzea, kasu guztietan eta hondakin-partida bakoitzerako, metodo homologatuaren bidez egingo da; zentroaren langile-taldeko kide den laborategiko buru batek gainbegiratu beharko du eta espezializatutako goimailako tituluduna izan beharko da.

Befesa Zinc Sondika, SA enpresak dituen ekipoen zerrenda aurkeztu beharko du, horien kalibratzemetodoen inguruko informazioa gehituz. Era berean, hondakinak onartzeko parametro bakoitzerako, erabilitako analisi-metodoak eta neurketaren zehaztasuna aurkeztu beharko dira.

Baimen honetan adierazitakoen bestelakoak diren hondakinak ez dira onartuko. Dena dela, kudeatu beharreko hondakinak zabaldu nahi izanez gero, aldez aurretik Ingurumen Sailburuordetzaren onespena beharrezkoa izango da, Ebazpen honen J) atalean adierazitakoa betez.

D.1.1.– Hondakin onargarriak.

Befesa Zinc Sondika SA enpresaren instalazioetan ondoren identifikatutako hondakinak onartuko dira, beti ere organo honek atal honetan adierazitakoari jarraiki balidatutako onarpen-agirian ezarritako onartzeirizpideak betetzen baditu.

D.1.1.1.– Hondakin arriskutsu onargarriak.

Una vez realizada dicha caracterización deberá solicitar aprobación expresa de esta Viceconsejería de Medio Ambiente debiendo incluir en dicha solicitud, además de los resultados de la caracterización efectuada, una propuesta de parámetros limitativos o condicionantes para la aceptación del residuo y los que, en su caso, deban analizarse antes de la recepción de cada partida.

Comprobada la posibilidad de admisión de un determinado residuo, Befesa Zinc Sondika, S.A. remitirá al titular del mismo documento acreditativo de la aceptación en el que se fijen las condiciones de ésta.

Al objeto de verificar la posibilidad de aceptación y recepción de residuos Befesa Zinc Sondika, S.A. deberá disponer en todo momento de los medios técnicos y humanos que permitan la comprobación de los parámetros de aceptación de los mismos. La determinación de aquellos parámetros que condicionan la aceptación deberá efectuarse, en todos los casos y para cada partida de residuos mediante método homologado, bajo la supervisión de un jefe de laboratorio que formará parte de la plantilla del centro y deberá ser titulado superior especializado.

Befesa Zinc Sondika, S.A. deberá presentar una relación de los equipos disponibles incluyendo información relativa a los métodos de calibración de los mismos. Asimismo se deberá presentar para cada uno de los parámetros de aceptación de residuos, los métodos analíticos utilizados y precisión de la medida.

No podrán aceptarse residuos que difieran de los señalados en la presente Autorización. En todo caso, la ampliación de los residuos a gestionar requerirá la aprobación previa de la Viceconsejería de Medio Ambiente, ajustándose a lo dispuesto en el apartado J) de esta Resolución.

D.1.1.– Residuos admisibles.

Serán admisibles en las instalaciones de Befesa Zinc Sondika, S.A. los residuos identificados a continuación siempre y cuando cumplan los criterios de aceptación y recepción establecidos en el documento de aceptación validado por este órgano de conformidad con lo señalado en este apartado.

D.1.1.1.– Residuos peligrosos admisibles.

Hondakin mota	HEZ kodea
Gas-efluenteetatik eratorritako partikulak	10 05 03 *
Gasen tratamenduko hondakin solidoak	10 05 05 *
Gasen tratamenduko hondakin solidoak	11 05 03 *
Metal-edukia duten hondakinak	11 01 98 *

Tipo de residuos	*Código LER*
Partículas procedentes de los efluentes gaseosos	*10 05 03 **
Residuos sólidos del tratamiento de gases	*10 05 05 **
Residuos sólidos del tratamiento de gases	*11 05 03 **
Residuos con contenido en metales	*11 01 98 **

Halaber, Befesa Zinc Sondika SA enpresak bere ekoizte-prozesuan sortutako hondakin arriskutsu hauek kudeatu ahal izango ditu: mahuka-iragazki erabiliak.

Uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren I. eranskineko III. taulak jasotzen duenaren arabera bestelako hondakin arriskutsu mota generikoen nahasketari egoztekoa den kutsadura duten hondakinak ez dira hondakin arriskutsuen plantan onartuko, hondakin onargarrien izendapenaren barruan izan daitezkeen arren.

D.1.2.– Hondakin ez-arriskutsu onargarriak.

Asimismo Befesa Zinc Sondika, S.A. podrá autogestionar los siguientes residuos peligrosos generados en su proceso productivo: filtros de mangas usados.

No podrán aceptarse en la planta residuos peligrosos que pudiendo encuadrarse dentro de la denominación de los residuos admisibles presenten contaminación atribuible a la mezcla con otros tipos genéricos de residuos peligrosos conforme a lo reflejado en la tabla III del anexo I del Real Decreto 833/1988 de 20 de julio.

D.1.2.– Residuos no peligrosos admisibles.

Hondakin mota	HEZ kodea
Lehen eta bigarren mailako produkzioko zepak	100501
Bestelako partikulak eta hautsa	100504
100510 kodean zehaztu ez diren bestelako galauts eta aparrak	100511
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	100599
Galbanizazio-matak	110501
Zink-errautsak	110502
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	110599
Burdinarik gabeko metalen karraka-hautsak eta txirbilak	120103
Burdinarik gabeko metalen hautsa eta partikulak	120104
Burdinarik gabeko metalak	160118
Zinka	170404
Burdinarik gabeko hondakinak	191002
Burdinarik gabeko metalak	191203
Metalak	200140

Tipo de residuos	*Código LER*
Escorias de la producción primaria y secundaria	*100501*
Otras partículas y polvo	*100504*
Granzas y espumas distintas de las especificadas en el código 100510	*100511*
Residuos no especificados en otra categoría	*100599*
Matas de galvanización	*110501*
Cenizas de zinc	*110502*
Residuos no especificados en otra categoría	*110599*
Limaduras y virutas de metales no férreos	*120103*
Polvo y partículas de metales no férreos	*120104*

Tipo de residuos	*Código LER*
Metales no férreos	*160118*
Zinc	*170404*
Residuos no férreos	*191002*
Metales no férreos	*191203*
Metales	*200140*

D.1.3.– Hondakinen sarrera-kontrola.

a) Fabrikara tratamendua jasotzera iristen diren hondakinen kontrola egin beharko da, hondakin horiek Ebazpen honetako baldintzen arabera fabrikan onartuko direla bermatzeko. Kontrol hori Ingurumen Sailburuordetza honek onetsitako onarpen-agirian ezarritako egiaztapena izango da.

b) Hondakina hartu aurretik, onarpen-agiri horretan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da. Hartu behar diren hondakin arriskutsuak formalizatzeko, kudeatzaileari dagokion atala bete beharko da kontrol eta jarraipenerako agirian, edo horren baliokidea den agiri ofizialean.

c) Onarpenerako parametro mugatzaileak betetzen ez dituelako instalazioan ezin hartu den hondakin-partida bat izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Horrekin batera, jatorria, kopurua, enpresa garraiatzailea, bazterketaren arrazoia, baztertutako hondakinaren helmuga eta bestelako gorabeherei buruzko datuak eman beharko dira.

d) a) atalean adierazitako kontrolen osagarri gisa, fabrikan kudeatutako hondakin arriskutsu mota bakoitzaren karakterizazioa egingo da urtero (jatorri desberdin bakoitzeko karakterizazio bat). Karakterizazio hori kanpoko laborategi batek egin beharko du. Informazioa Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da urtero.

e) Befesa Zinc Sondika SA enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, bost urtean gutxienez.

f) Aurreko atalean aipatutako agiriak ingurumen-organoari bidaliko zaizkio, ahal bada, erakundeentzako IKS-L03 Sistemaren bertsioa erabilita.

g) Befesa Zinc Sondika SA enpresak egiaztatu beharko du hondakin arriskutsuak Sondikako udalerrian kokatutako instalazioetara eramateko erabiliko den garraioak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean den legeriak ezarritako baldintzak betetzen dituela. Horren inguruan antzematen den gorabehera oro be-

D.1.3.– Control de entrada de residuos.

a) Se deberá llevar un control de los residuos que lleguen a la planta para su tratamiento, de forma que se garantice que dichos residuos son admisibles de acuerdo con el condicionado de esta Resolución. Dicho control consistirá en la verificación establecida en el documento de aceptación aprobado por esta Viceconsejería de Medio Ambiente.

b) El cumplimiento de las condiciones señaladas en dicho documento de aceptación deberá comprobarse antes de la recepción del residuo, procediendo para aquellos residuos peligrosos a formalizar dicha recepción mediante la cumplimentación del apartado correspondiente al gestor en el documento de control y seguimiento, o documento oficial equivalente a éste.

c) En caso de que una partida de residuos no pueda ser recepcionada en planta por incumplimiento de los parámetros limitativos para su aceptación, se deberá comunicar, de forma inmediata, dicha circunstancia a la Viceconsejería de Medio Ambiente junto con los datos de procedencia, cantidad, empresa transportista, motivo del rechazo, destino del residuo rechazado y otras incidencias.

